



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Marie Chouinarden konpainia *Radical vitality*-rekin helduko da Arriagara, bakarkako eta bikotekako dantza pieza onenak biltzen dituen ikuskizun dotore eta birtuoso

- Koreografo kanadiar ospetsuak, dantza garaikidearen erreginetako bat eta Veneziako Biurtekoko dantza zuzendaria denak, 24 pilula txikik osatutako goi mailako lana eraiki du.
- Marie Chouinard handia konpainiaren errepertorioan murgildu da, goi mailako uneak ateratzeko eta bakarka eta bikoteka dantzatutako zatiz osatutako lan berria eraikitzeko, dantza zaleentzako benetako harribitxia.
- Arriagako ikusleen gogoan dago oraindik konpainiak 2017an eskaini zuen Boscoren *Atseginen Baratzea* lanari buruzko ikuskizun bikaina.
- *Radical vitality* lanaren bi emanaldi eskainiko dira, lehenengoa ostiral honetan, martxoaren 6an, eta bigarrena larunbatean, hilaren 7an, biak ere 19:30etik aurrera.

**Bilbon, 2020ko martxoaren 2an.**- Arriaga Antzokiak mundu osoko koreografo garrantzitsuenetako baten konpainia jasoko du datorren asteburuan: **Marie Chouinard**. Artista kanadiarra oso ospetsua da nazioarte mailan, eta une honetan Veneziako Biurtekoko dantza zuzendaria da. Chouinardek lan bikaina osatu du, azkenengo lau hamarkadetan prestatu dituen lan ugarietan bakarka eta bikoteka dantzatutako pieza onenak batuz. Lehenengoa ostiral honetan, martxoaren 6an, eta bigarrena larunbatean, hilaren 7an, biak ere 19:30etik aurrera, Arriaga Antzokian ikusi ahal izango dugun *Radical vitality*, koreografo handiaren lan guztien artetik aukeratutako dantzaren 24 harribitxi labur biltzen dituen oso konposizio koreografiko ederra da.

Marie Chouinard konpainiaren errepertorioan murgildu zen lan hau osatzeko, pieza koreografiko txiki horiei ikuspegi berriak emanaz. Artistak berriro egokitu ditu, soinuak jantzi eta giro berriak emanaz, moldaketa koreografiko berriak gehituz... Eta orain arte koadernoetako orrialdeetan egon diren ideiak ere berreskuratu ditu, bikotekako dantza bat beren beregi lan honetarako sortzeko. Guztira, *Radical vitality* lanak, 24 dantza harribitxi txiki ditu, minutu bat eta 10 minutu artekoak, eta atsedenaldirik gabeko bi ekitalditan aurkezten dira. Itxuraz independenteak diren arren, batasuna lortu dute sorkuntza prozesu luze eta sakonaren ondoren, dantzarien sentsibilitatea agerian geratzen den dotoretasun eta birtuosismo handiko erabateko ikuskizuna osatuz. "Bizitasun erradikal" hori arrakasta handiz estreinatu zen 2018ko ekainaren 23an Veneziako Dantza Garaikideko Biurtekoan. Bere erradikaltasunaren esanahia latinerazko Radix, sustraia, da.

Inolako zalantza barik, *Radical vitality*, Marie Chouinard sortzailearen mailan dagoen proposamena da. Arriaga Antzokiko ikusleek oso ondo gogoratzen dute 2017an azken aldiz etorri zen aldia, ikusle guztiak aho zabalik utziz, Boscoren "Atseginen Baratztea" lanean oinarritutako lan ikusgarriarekin.

Duten teknikaren, moldakortasunaren eta trebezien ondorioz txalo asko eta asko jaso dituzten eta ikuspegi somatiko desberdinetan entrenatuta dauden Compagnie Marie Chouinard konpainiako dantzari egonkorrek, Quebecoko benetako kultur enbaxadoretzat hartzen denaren lan bikaina ekarriko digute eszenatokira.

### **Dantzaren figura handia**

Marie Chouinardi buruz berba egitea, ospe handiko figura aipatzea da. Koreografoa, Compagnie Marie Chouinard konpainiaren zuzendaria, Prix de la Danse de Montréal izenekoaren sortzaile eta presidentea, Kanadako Arteen Zentro Nazionaleko dantzako artista kidea, Veneziako Biurtekoko dantza zuzendaria... hau da, dantza munduko figura handia.

Baina askoz gehiago ere bada. Egilea, eszenatoki eta argiztapen diseinatzailea, argazkilaria eta zine zuzendaria, bere lanen artean multimedia lanak, *Chantier des extases* izeneko poema bilduma, *Paradisi Gloria* argazki-instalazioa eta *Marrazkiak* izeneko arte erakusketa bat ere badaude. 2015ean Marie Chouinardek *Cantique* diseinatu zuen, App Storetik dohainik jaitsi daitekeen iPad-erako eta iPhone-rako aplikazioa. Medioa edozein izanda ere (eszenatokia, pantaila, digitala, inprimaketa, etab.), lanaren ardatza gorputza da beti.

Bere ibilbidea 1978an hasi zen, *Cristallisation* lehenengo lana aurkeztu zuenean. Lan horren ondoren, bere jaioterriko eta atzerriko eszenatokietan interpretatu zituen bakarkako hogeita hamar lan etorri ziren, horien artean *Marie Chien Noir* (1982), *S.T.A.B. (Space, Time and Beyond)* (1986) eta *Afternoon of a Faun* (1987), azken 40 urteetako dantza garaikidearen benetako une garrantzitsuak. 1990ean, bakarlari eta koreografoak bere konpainia sortu zuen: Compagnie Marie Chouinard. Orduetik mundu osoan aritu da, eta bere sorkuntza lanak, ospe handiko bazkideekin batera ekoizten ditu, Veneziako Biurtekoa, Nazioarteko ImPulsTanz Dantza Jaialdia (Viena), Théâtre de la Ville (Paris), Fondazione Musica Per Roma (Erroma), Place des Arts (Montreal), Festival TransAmériques (Montreal) eta Arteen Zentro Nazionala (Ottawa). 2007an, COMPAGNIE izenekoa bere eraikinera aldatu zen, Montrealeko Espace Marie Chouinard izenekora, hain zuzen ere.

Konpainiak obra erreperitorio zabala du, eta horietatik gehienak hainbat herrialdetan ikus daitezke oraindik. *The Rite of Spring*, adibidez, ia 25 urte egon da eszenatokietan, eta dantza garaikidearen historiako klasikoa bilakatu da. Marie Chouinarden lanak ballet konpainia garrantzitsuenen erreperitorioetan ere ikus ditzakegu, Kanadako Ballet Nazionalean, adibidez; eta hori gutxi balitz, 2015etik, Marie Chouinardek puntako beste konpainia batzuetarako lanak ere sortu ditu, Martha Graham Dance Company edo Ballets de Monte-Carlo, izenekoentzat, adibidez.

Marie Chouinardek jaso dituen sarien eta aipamenen artean hauek azpimarratu daitezke: Bessie Saria (New York, 2000), Montrealeko Arteen Kontseiluaren Sari Nagusia (2006), Kanadako Ordenaren Ofizial titulua (2007), Arteen eta Letren Ordenaren Zaldun titulua (Frantzia, 2009), Denise Pelletier Saria (Quebec, 2010), Samuel de Champlain Saria (Frantzia, 2014), "Urteko Koreografoa" Positano Saria (Italia, 2016) eta Arte Eszenikoetan erakutsitako Bikaintasunari ematen zaion Walter Carsen Saria (Kanada, 2016). Eta, bere garrantzia argi eta garbi erakusten duen gauza bitxi gisa, esan behar da Marie Chouinarden izena Le Petit Larousse hiztegioko, edizio ilustratuko, sarrera bilakatu zela 2010ean.

## **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 14 eurotik 42 eurora (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# ***Radical vitality***

Bi ekitaldi dituen balleta, atsedenaldirako tarte barik

Koreografiak: **Marie Chouinard**

Ahotserako partiturak: **Marie Chouinard**

Dantzariak: **Michael Baboolal, Adrian W.S. Batt, Jossua Collin Dufour, Valeria Galluccio, Motrya Kozbur, Luigi Luna, Sayer Mansfield, Carol Prieur, Celeste Robbins, Clémentine Schindler.**

Argiak: **Marie Chouinard.**

7 izan ezik: **Axel Morgenthaler**

Bideoa, eszenografia eta tresnak: **Marie Chouinard**

Jantziak: **Marie Chouinard**

2-6-22 izan ezik: **Liz Vandal**

Birako taldea:

Birako zuzendari artistikoa: **Annie Gagnon**

Tour Managerra: **Martin Coutu**

Zuzendari teknikoa eta eszena zuzendaria: **Catherine Renaud-Dessureault**

Soinu ingeniaria: **Pierre-Alexandre Poirier-Guay**

Argiztapenaren gerentea: **Chantal Labonté**

Musika: **Louis Dufort**: 2-6-11-13-14-16-17-18-20-22-23-24

**Frédéric Chopin** (5 preludioa opus 28an): 7

**Georg Friedrich Haendel** (Lascia Ch'io Pianga, Montserrat Caballek interpretatuta): 9

**Carles Santos**: 10

Iraupena:

**Lehen ekitaldia - 42 min - atsedenaldira 3 min – bigarren ekitaldia 38 min**

Mundu mailako estreinaldia:

**2018ko ekainaren 23an, Veneziako Dantza Garaikide Biurtekoan**

Informazio gehiago:

Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)

[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)